

AITA POLIKARPOREN BIZITZA ETA OBRAK

Iraizotz, 1997-03-22

Frantzisko Ondarra

Bigarren milaurtea akitzen ari dela, hemeretzigarren mendearen amaieran jaio zen Agustin Zarrantz Bermejo-ren mendeurrena ospatzen dugu gaur hemen. Eskola-maisuaren umea A. Polikarpo Iraizozkoa bilakatu zen gero: fraide apal, sendagailarik egiten ez zekiena, langile neka-ezina, euskal idazle eta euskaltzale zinezkoa.

1. BIZITZA

Bildurik gauden etxe honetan etorri zen mundura Agustin 1897 urteko urtarrilaren 31.ean. Aita Migel Zarrantz Goldaratz izan zuen, Errotz herrian —Arakilen— 1852 urtean jaioa; ama Priska Bermejo Irisarri, Orba ibarreko Puiu-koa. Aitaren aldetiko aitona-amonak Arakilgo Ekai eta Basaburuko Uda-bekoak ziren, eta amaren aldetikoak Valtierra eta Mañerukoak. Aita eta ama pontekoak Juan Agustin Lasaga eta Frantziska Barberena, Iraizozkoak eta bertan bizi zirenak, izan zituen. Zarrantz deitura Satrustegitik —Arakilen— zertorkion. Hemezortzigarren mendeko lehen laurdenean Frantzisko Zarrantzkoa, Satrustegiko semea, bertako alaba zen Magdalena Juanenarekin ezkondu zen. Mende horretako Zarrantzarrak eta beren emazteak Arakil eta Ollo ibarretakoak dira, eta hurrengo mendekoak emazteak Basaburua eta Orba ibarretakoak.

Gazte-gazterik hil ziren beste zenbait kontuan hartu gabe, zazpi ume izan zituzten Migel eta Priskak: Anjela, Juan, Tomas, Josefa, Martin, Agustin eta Margarita. Iraizozko maisu luzaro izan ondoren eta Agustin bost urteko mutikoa zela, hil zen aita eta maisua. Harez gero, eskola gutxi izan zuela dio berak.

Hamaika urterekin, euskaldun hutsa den bere jaioterria utzirik, Altsasura doa kaputxinogai latina eta beste ikastera lau urtez —1908-1912—. Hasieran oztopo handiak jasan behar izan zituen, gaztelania gutxi zekielako. Zangozan bi urte —1912-1914— igaro zituen, profesio erlijioso eta bosgarren latin urtea egiten zituela. Hondarribian hiru urtez —1914-1917— filosofia ikastaroa burutzen du, bidenabar ahantzixea zeukan euskara berreskuratzen eta hemeretzi

urterekin —1916an— lehen olerkia argitaratzen duela, eta bere kabuz alemana ikasten duela, zoko batean aurkitu duen gramatika baten bidez. Teologiako lau urteak Iruñean ikasten ditu —1917-1921—, eta 1921 urteko martxoaren 26.ean apaizten da. Teologoek urtean behin ateratzen duten *Auras del Arga* argitalpenean urtero agertzen du olerkiren bat.

1922an Joakin Larreglaren musikarekin eta Alberto Pelairearen testuarekin *Himno de Navarra a San Francisco Javier* agertzen da, 25 urtekoa den Iraitotzen euskal itzulpena daramala. Urte horretan eta hurrengoan, 1922ko urtariletik 1923ko iraila arte, Zugen —Suitzan— du egoitza, Euskaltzaindiak emandako beka baten bitartez filologia erromanikoa estudiatzen duela Zürich-eko Unibertsitatean, irakasleen sinestamenduak eskuratuz.

Iruñean dugu 1923-1930 arteko urteetan, komentuko bibliotekazain dela, eta apaiz lanetan diharduela etxean eta inguruko herrietan: predikatzen eta jendea aitortzen. Belatetik hegoaldeko herri euskaldunetan 1927-1930 arteko urteetan predikatu zituen zenbait sermoi gordetzen dira: Baraibar, Gartzaron, Etxaleku, Iraitotz, Lizaso, Aralar, Madotz, Eugi eta Lekunberrin, garai horretako hiru bakarrik gordetzen direla erdaraz predikatuak: Iruñeko komentuan, Urdaotz-Zolinan, eta Lekunberrin 1929an. Nafarroako herrietan bildutako hitz asko aldi honetakoak izan daitezke. 1925 urtetik hasita, 25 urtez moldatu zuen Euskalerriko eta Aragoiko komentueta erabiltzen zen liturgia egutegia.

Erizkizundi Irukoitza-n esku hartzen du eta Nafarroako hogeit hamar herritan betetzen du eginkizun hori. *Iruugarrengo Prantziskotarra*-n hasten da 1924an argitaratzen, gero 1934an liburu bezala agertu zen Jesukristoren bizia. Eten gabe dihardu *Zeruko Argia*-n, *Euskal Esnalea*-n ere ageri dela behin bere luma. Ez da beraz harritzekoa 1930eko apirilaren 24.ean euskaltzain urgazle izendatzen badute, data horretan kaputxinoek euskaltzain oso bat: A. Intza, eta hiru urgazle dituztela: Gure Polikarpo, Kaparrosoko Zelestino —B. Arrigaray— eta Oieregiko Bonabentura —ik. *Euskera*, 1930, 319-320—. Erdararendako ere aurkitzen du astirik, eta bi liburu itzultzen ditu alemanetik.

Lekarozen dugu 1930 urtetik 1949ko abendua arte. Hemen ere itzultzen ditu alemanetik beste bi liburu, 1949 eta 1950ean agertuak. Baina eginkizun nagusia irakaskuntza du: latina, grekoa, alemana etab. irakasten ditu, mutikoen zaintzen ere aritzen dela. 1931n edo Madrilen alemana emateko gaitasun agiria lortzen du. Euskal mundua zabalagoa da hemen, eta A. Etxalarren eskutik *Euzkadi* irakurtzeko aukera du. Predikatzen ere jarraitzen du. Baina orain, Aralar utzi gabe, Belatetik ipar aldera dauden herrietan aitortzen eta predikatzen du, beti euskaraz. Idatzirik utzi zuen paper batean ikusten dugunez, 1948an 33 sermoi predikatu zituen eta hurrengoan 40, horrez gain jendea aitortu eta meza eman behar zuela. Bi urte horietan hilabetero Arizkunera joaten da hango kristauak konfesatzera, eta ostiralero hango mojak, ostiraletako joan-etorria oinez egiten duela, eta arratsaldean eskola ematen duela. Sermoingintzan etab.

1941etik aurrera ari da batez ere, 1931-1934a arteko sermoirik ez duela gorde, ezta 1936 eta 1938 urteetakorik ere.

1934an Jesukristoren bizia agertu zuen, *Imprimatur* eta *Sarrera* 1932ko abenduak badira ere. 1933an igande eta jaiegunetako ebanjelioak eman zituen, eta *Yakintza* aldizkarian alemanetik itzulitako bost poema 1934-1935 urteetan. 1934an A. Olazararen *Gimnasia Lekarotz* euskaratzen du. *Zeruko Argian* jarraitzen du, aldizkariaren hasieratik bukaeraraino —1919-1936— 172 aldiz ageri dela bere izena. Aldizkariaren eranskin gisa, zatika argia ikusten zuen *Lapurren Menpean* izeneko kontakizun historikoa, 1934an bukaturik zeukana, mozturik geratu zen harekin batera 1936an, baina orain *Klasikoak* bilduman oso-osorik agertuko da. Aldizkari beraren eranskin bezala, *Bi artzainak Eguberri gauean* agertu zen 1935ean alemanetik itzulia. Marmorezko lauzatan badu xixelaturik gurutze-bide bat: Lekarozen dagoen Legate mendian kalbario bat eraiki zuten Errepublikara garaian kaputxinoek, A. Migel Altzokoa zela eragilea eta Polikarpo esaldi laburren idazlea.

Espainiako guduak Alemanian arrapatzen du, 1936ko uda Krefeld hiriko komentuan igaro baitzuen alemana hobetzen —1936ko 7-12-etik 9-26/27.erairno—. Bi urte direla gudua bukaturik, Azkuek 1941 urteko apirilaren 14.ean idazten dio Euskaltzaindia berpizteko ordua ailegatu dela eta euskaltzain izendatu dutela. Baina ez du onartzen, asko pozten bada ere horrekin “gure hizkuntza gaixoari diodan maitasunaren handiaz”. Bere Ordenak anitz sufritu duela, zenbait erlijiosok gure hizkuntza, edestia, folklorea etab. landu dituztelako. Oroit dadila bere euskaltzain-kide A. Intza on-onarekin ‘buenísimo’ gertatuaz, eta ulertuko duela bere nagusiek ez badire beren erlijiosoek horrelako lan motatan parte har dezaten aldekoak. Hain berri eta ezatsegin den eskarmentua kontuan hartzen badu, konprenituko duela hori errepikatze gogorik ez izatea. Argi dago kokildurik dagoela, besteak beste, Lekarozko fraidekide anitz handik jaurtikiak izan direlako eta euskal aldizkariak desagertu direlako. Euskal arloan ez du ezer agertzen, baina, goian esan bezala, bi liburu itzultzen ditu alemanetik —1949 eta 1950ean inprimatuak—.

1949ko abenduaren 23.ean ailegatzen da Erromara eta 1972 urteko urria arte han du bere lantokia. Askaturik sentitzen da han eta berehala hasten da bere gogo-bihotzeko duen eginbeharrean. 1951n Donemiliagako euskal esaldiak ukitzen ditu, 1952an *Arimaren zuzendaria* —itzulpen lana— ematen du, 1954an *Euzko Gogoa*-n eta 1964an *Olerti*-n ageri dira bere hamalaukoak, Iri-sarri ezizen berriarekin, eta 1957an gurutze-bide labur bat, oraindik ere gure herrietan erabiltzen dutena.

Italiaratu zenean, berekin eramán zituen euskal zer guztiak, 1953ko gutun batek dioskunez: “... Amaika aldiz idatzi zidatek egiteko zerbait, salmoen itzulpena bukatzeko; asmo oiekin etorri ninduken Erromara; neure euskerazko lantxo guztiak: itzaldi, neurtiz, iztegi-gai, ekarri nizkian onara, astiorduetan oiek

lantzeko ta apaintzeko, iñoiz argitaratzeko era izango bazen ere. Baiña ez er gutxi egin diat zoritxarrez”.

Kaputxinoek Erroman duten Kuria Jeneralean bizi da denboraldi honetan guztian. Lehenbizi, gaztelaniaz mintzatzen direnendako Idazkariorde Jeneral egiten du —1949-11-16.ean— Klemente Milwaukee-ko Ministro Jeneralak, eta Hirugarrendar Ordena Kaputxinoaren Kontseilu Jeneraleko kide gero —1950-1-24.ean—. Hirugarrendar Ordenaren Idazkariorde izendatzen du Benigno Sant’Ilario Milanese-ko Ministro Jeneralak —1952-6-27—, eta Ordenako Idazkari Jeneral 1952-12-5.ean, 18 urtez eramaten duela kargua, 1970-10-1.an liberatzen duen arte Paskoa Rywalski Ministro Jeneralak. Egun horretan bertan, sortu berria duten eta *latinista* deitzen duten kargua leporatzen diote, bera bihurtzen dela lehen *scriptor litterarum latinarum*-a.

Erroman, ia 23 urteko egonaldian, lan eskerga zertu zuen. Idazkari Jenerala izateaz gain, bi kapitulu edo batzarre jeneraletako idazkari izan zen —1958 eta 1964—, kargu horrek sinestu-ezineko lana suposatzen duela. Ordenaren aldizkarietan eten gabe idazten zuen latinez, Ordenako santuen ofizioak prestatu, koruan erabiltzen diren liburuak zuzendu, zenbait Kongregaziotan esku hartu, Eliza Osoko meza-liburuko irakurgaiak berraztertu etab. Ba omen zituen berrikusi 10 mila eta gehiago orrialde inprimatu. Lan horri erantsi behar zaio eguneroko gutunketa, arazo arruntak eta ez arruntak ahanzi gabe. Rywalski Jeneralak, 1972ko urriaren 30.ean idatzi zuenez, ez zen irteten Kuriatik, ezpada Mojei laguntzera meza ematen eta aitortzen, eta Erromako elizak bisitatzera. Beste hau ere esaten du: “Zilegi bekigu eranstea, euskararen inguruan burututako lanengatik, hizkuntza horren akademiko izan zela izendatua”. Izendapen hau 1968-12-4.ean izan zen.

Aipatu dugun urteko hurrengo egunean Lekarozera abiatzen da. Han eza-gutu genuenok badakigu oso nekatuak ailegatu zela. Hala ere ez zuen astirik galdu eta berehala murgildu zen atzeraturik zituen euskal gazetan, *Euskera* eta *FLV*-en azaltzen zirela bere fruituak: XVIII mendeko bertsoak, Lizarragaren hiztegia, *Iruñea* ala *Iruña* hautatu behar den, *Yaniz* dela *Salinas de Oro*-ren euskal izena, zein den *dario* etab. adizkien partizipioa, eta *erho*, *eho* ‘hil’ aditzaz. Ez zioten ordea utzi bakean, eta beste lanik ere egin behar izan zuen, bere-bereak zituenak burutu gabe laga behar izan zituela. Bere azken lana, Iruñeari buruzkoa, *FLV*-era bidaltzeko prest zeukan eta hil zen urtean bertan agertu zen. Inori lan eman gabe itzali zen 1980ko apirilaren 5.ean.

2. BERE LANEN SAILKAPENA

1. Euskararen alorrean 15 bat mila lerro utzi zituen hitz-neurtuz, eta hitz lauz ere anitz idatzi zuen, maizenik erlijiozko gaiak erabiliz. *Irugarrango Prantziskotarra* eta *Zeruko Argia* izan ziren bere plaza nagusiak, *Euskal Eснаle*-ak,

Yakintza, Euzko Gogoa eta *Olerti*-k ere ezagutzen zutela bere luma. 1978an —ik. JAI, Fondo Pertsonala, N.2.ko gutuna— hitz-neurtuzkoak biltzen eta gehienak berkopiatzen eta aldatzen dituela ikasten dugu, hamalaukoak *h* eta guztirekin bermoldatzen dituela. Ikus bere lanen sailkapena:

a) Berak ondutako bertsoak, anitz musikarako testuak direla. Aipatze-koak dira hamalaukoak, Irisarri ezizenarekin *Euzko Gogoa* eta *Olerti*-n, eta bere izenarekin *Kristo gure Jauna eta andredena Maria* liburu sarituan agertuak, multzo handia osatzen dutela argia ikusi ez dutenek.

b) Itzulitako bertsoak, anitz latinetik: liturgiako himnoak eta besterik; alemanetik ere anitz, eta bakartxoren bat grekera (?) —anakreontenak—, italiera, frantsesa eta katalunieratik.

c) Bibliako salmoak, bederatzi ez beste guztiak, hitz-neurtuz euskaratuak, 1935-11-2.erako 120 bat itzuliak zituela —A. Julen Igorrekoari Txinara bidalitako data horretako gutuna—.

d) Hitz lauz ere idazten du, hala nola *Irugarrengo Prantziskotarra*-n Jesukristoren bizia, eta *Zeruko Argia*-n ipuinak etab., argitara gabeko ipuinik badagoela. Argitaratuetan Jesukristoren bizia da luzeena, bere bihotzekoena, gehien irakurria izan dena eta *Orotariko Euskal Hiztegian* etab. aipatuena. Bazuen berak guzti horren berri, eta iritsi zuen estimuak biziki pozten zuen eta honako hau idatzi zuen: “Zenbait euskalzalek eta euskal-idazlek aitortu izan didate, erdi ahantzia zeukaten euskera, liburutxo hortan berriitu zutela”. Baina eransten du: “Ez ziren noski ale guziak saldu; 1936-an saldu gabe zeudenak ondatu ziren, ez dakit nora...” —Euskera, 1980, 498—. Hondatu zirela dio, hondatu zituztela esan beharrean, eta ez dakiela “nora” eta hiru puntu. Baina badago oraindik lekukorik, nora joan zen eta zertarako baliatzen ziren paper mehe-fin hartaz oroitzen denik, eta euskaltzain izendatu zuten urteko udan zer gertatu zen badakienik.

e) Predikuak dira lehen aipatze-koak argitara gabeetan. Badira 240 bat, makinaz 1.430 orr. betetzen dituztenak, orrialdeko 28/29 lerrodunak. Hiru ez beste guztiak euskaraz daude, hiru horiek eskuz eginak, euskarazko denak makinaz daudela. Baztango euskararen moldatu omen ditu —Euskera, 1980, 500—, baina ez da hori egia osoa. Badira ere hiru antzerkitxo neskatoek antzetzeko onduak.

2. Ikerlanak. Alor honetan ez zuen ezer argitaratu Erromara joan aurretik.

a) Haruntz ailegatu bezain laster, Donemiliagako esaldiez idatzi zuen —Lekarozen zertua segur aski— *BAP* aldizkarian, Menéndez Pidal, Tovar, Urquijo eta Lafitte-ren azalpenak txartzat jotzen zituela, eta Mitxelena —*Textos arcaicos vascos*, 41 hh.— eta Irigoienek —*FLV*, 51 (1988), 5 hh.— funtsean ontzat ematen zutela. —Erromatik Lekarozera ailegatu zeneko berri eman dugunean, ipini ditugu gainerako ikerlan argitaratuak—.

b) Argitaratu gabeko materialik badago utzi zituen paperetan. Nafarroan herriaren ahotik hartutako hitzak eta zenbait liburu klasikotik jasotako hitz eta esaerak, berak asmatu eta bildutako etimologiak, etab. Nafarroako hitz-mordoska bat bidali omen zuen Euskaltzaindira Erromara joan aurretik —*Euskera*, 1980, 500—.

Argitara gabekoez, bai ikerlan eta bai predikuez ari zela, galdera hau bota zuen: “Nora joango dira argitaratu gabeko guzi hoiek?” —*Euskera*, 1980, 500—. Lasai egon dadila, oraingoz ongi gorderik daude, eta hauek ez dira hondatu, goian aitatu hura bezala.

3. Besteri laguntzen. Goian esandako zenbait gauza besteri laguntzen burutu zituen, hala nola Joakin Larreglari, eta *Zeruko Argia*-n beren abestiak agertzen zituzten Donostia, Elduaien eta Olazarani, soinuari egokituriko testuak prestatzen edo itzultzen. Lekarozko bigarren egonaldian ere izan zuen nori lagundu.

a) Errezu da horren lekuko. Maiz ageri da Donostia-ren musika lanetan haren izena laguntzaileen artean: soinuen testuak finkatzen, batez ere herri kantutegian, testu berriak sortzen edo itzultzen, euskaraz ere kantatuak izateko moduan, etab. Italiatik ere lagundu zion egiteko hauetan, Lekarozera atzera itzuli baino lehen. Erants dezagun ez zela A. Errezu beste inorengan fidatzen arazo horietan.

b) A. Intzak ere hitz egin dezake. *Nafarroako euskal-esaera zarrak* liburua osatu, moldiztegirako garbi idatzi eta inprentako frogak zuzendu zizkion. Gainera, bazuen Intzak bere bizialdiaren hondar urteetan azken nahia dei genezakeena. *Irugarrengo Prantziskotarra* eta *Zeruko Argian* hainbeste lagundu zion Jautarkolen olerkiak nahi zituen argitaratu. Ehun bat poema bazituen bildurik, hitzaurrea buruturik zeukan, baina ez zen gauza makinaz behar bezala aurkezteko bere fruitua, oker-montio gaitzak pilatzen zirela. Horregatik edo, ezin izan zuen argitaratu, Donostiako Aurrezki Kutxa-k agindu omen zion diruaz baliaturik —Erburuk Polikarpori bidali gutuna: 1978-12-3—. Lan hizugarria ari zaiola ematen Intza, diotso Polikarpok —1979-3-15.go gutuna— ia bapatean itsutu den Intzak duen idazkariari, beti aurkitzen duelako olerkietan zuzendu behar denik. Beldur dela Kutxa-ri eman dion kopia ere hutsez beterik egongo oten den. Horrela ezin dela argitara eman, eta Kutxa-koa berreskuratu behar litzatekeela. Ez duela adorerik, Intzak nahi duen eta beharrezkoa den bezala, handik eta hemendik ibiltzeko olerkien orijinalen bila, non eta noiz izan diren emanak jakiteko, etab. Esan behar dugu, hala ere, hilik bere laguntzailea hurrengo urtean eta bera ere zendurik, biek hartu lana ez dagoela galdurik, ongi gorderik baizik. Gainera, Intzak eskaturik, beste fraidekide gazteago eta adoretu batek jarraitu zuen bilketei esker, badugu orain 150 bat poemek osatutako bilduma ederra, baina argitara gabea, jakina.

c) Hirugarren lekukoa —ez dugu besterik aipatuko, horien eskabideak erderara itzultzeakoak baitziren— Iruñeko Elizabarrutiko Bikario-ordeko zen Pe-

dro M.^a Zabaltza da. Besteak beste, Nafarroako Elizaren Orduen Liturgiarako euskal irakurgaiak prestatu baitzituen —1980-4-8.go gutuna— latin, gaztelania eta frantsesetik, 1976 urtean hasita.

4. Bukatzeko.

Anitz idatzi zuen berak maiteena zuen hizkuntzan, eta ederki, bere ize-narekin: Iraizozko Polikarpo aita, eta Urtsuia eta Irisarri ezizenekin izenpetzen zuela. Aldizkarien bidez eta elizetan ematen zituen predikuen bitartez euskal kristauei janari gustagarri eta probetxugarria eskaintzen ahalegindu zen. Hitz-neurtuzkoek ere hori zuten helburu nagusizat, baina ertilari bezala ere ontzen zituen poemak eta itzultzen, eta behin eta berriz berrukitzen zituen. Hitz-biltzaile saiatua izan zen, eta euskalki gehienetako eskuizkribu zaharren gorde-tzaile arduratsua. Euskalki guztietako berbak baliatzen zituen, ez zuelako maite ez garbizalekeria ez mordoilokeria.

Fededun zintzo eta jatorra baitzen, ez zitzaion atsegin gertatzen *Egan* aldizkarian agertzen zen zenbait gauza. Mitxelenari honako hau esan zion gutun batean: “Bai, aspaldi oartua naiz EGAN’go zenbait idazleri ta irakurleri elizako usaiak eztiela onik egiten noski, bestelako ustel-kiratsak atseginago dituztela. Orain urte bat edo bi direla, protesta bat ere bidali gogo izan nuen or agertu zen tragedia itsusi baten kontra” —1966-4-21—.

Sermoigintzan eta erlijio literaturan itzal handiko ereduak izan zirela garai haietan, dio Mitxelenak, eta Juan B. Eguskitza eta A. Polikarpo azaltzen ditu —*Literatura*, 153—. Eta alemanetik itzulpen finak egin zituela eranstean du, eta hamalaukoak goraki laudatzen ditu. Jesukristoren biziaz ari dela, Aingeru Irigarai-k ulergarria eta atsegingarria zela esan zigun, gipuzkerarekin batera nafarrera eta lapurtera ere erabiltzen zituela —*RIEV*, 1935, 387 hh.—. Mitxelenak ere azpimarratzen du: “Aita Iraizoz-ek erabili ohi zuen nafar-kutsuko euskara” —*iker-2*, 446—.

Olerkari bezala, A.S. Onaindia-k dioskunez, “samur eta sen aundikoa” da —*Mila euskal-olerki eder*, 992—. Guk sentimena eta debozioa, eta deskrip-ziorako joera, ikusten ditugu, baita hizkuntzak aurkezten dituen baliabideak erabiltzeko trebetasuna ere, onomatopeiak barne.

Salmoen itzulpenaz txoraturik omen zegoen Lauaxeta, ez omen zuen beste hizkuntzetan ere horrelakorik ikusi: hala idatzi omen zuen *Euzkadi*-n eta berari eta besteri esan ere. Alemanetik itzultitako hiru olerkiz hau esan zuen: “Alemanerazko testuen itzultzaileak, A. Iraizoz-ek, kultura gorako ertilariak, euskaraz idatzi den Jesukristoren bizitza ederrenaren autoreak, alemanerazko olerkari hobenen poema lirikoaren itzultzaileak, egiazko euskal bitxiz mukurutu gaitu” —*Euzkadi*, c. 1936—. Lehenago zera esan du eresi horietako bati buruz: “A. Iraizoz-ek lan bikain bat egin du P. Gerhardt-en testuarekin ... Oso zaila deritzagu gauza beteagorik burutzea”. Eta beste hau ere: “Iraizoz’en lanok zozgarrijak dira”.

Prosa- eta olerkigintzan gozo eta samurra, laztasunik eskaintzen ez duena, salmoetan salbu beharbada, berak dioen bezala horien itzulpena zailagoa eta jori eta jasoagoa izan zelako. Ikus ditzagun esandakoen frogagarri zenbait poematxo.

1. *Txorien artean nausi* da lehenbizikoa. Arga-ren ondoan izan da konpondua, urretxindorrek hor abesten baitute, eta olerkaria alai, doatsu eta poztari ageri zaigu.

Txorien artean nausi
erretxiñola kantari;
kantatzen du ain ederki
goizik argi-asteari;
oi! aren txinta ederrak
txoraturik nau ni yarri.

Zeruan eder ilargi,
izarrak ere an dizdiz;
ni egon naiz ainbat aldiz
aiei begira ermerik
nere gelako leiotik
bai guzi au txoraturik.

Gazte naiz eta kantari,
erretxiñola iduri;
alai, doatsu, poztari,
parregile ta yostari;
guziekin adiskide,
eztut kezkarik bat ere.

Orain bukatzera noa,
kantatu dizut naikoa;
lagun bekigu Jainkoa
beti zintzo ibiltzera,
Berak digula gau ona,
gero betiko zerua.

2. *Agur, oi Maria* du izena onomatopeia eta deskripzioz ederturiko hamalauko saritu honek.

Eliza-dorrean dilindan zagozen
ezkila pozgarri din-din-dandaria:
burdinazko mihiz "Agur, oi Maria!"
txintxa zazu gora, egin soinu ozen.

Airean barrera hegaka zatozen
txori xauli arin txio-txintaria:
eztarri legunez "Agur, oi Maria!"
txinta zazu alai ahalik gozoen.

Oskarbian gaez izarrek dil dil dil,

daldaraka belar, lore ta hostoek,
mendian behera xirripek pil pil pil:

Aingeru sainduak zeru garaietan,
lur behere hontan kristau on zintzoek:
“Agur, oi Maria!” kanta orok betan.

3. *Gure Herria* deitu hamalaukoak Euskal Herriari dioen maitasuna erakusten du. Erroman izan zen moldatua eta *Euzko Gogoan* agertu zen 1954an.

Oi gure Herri hau zein dagoen zapal!
nagusi arrotzek gain hartu digute;
herria dariela hortxe dihardute:
elkarri oihuka, oro aho-zabal:

“Aup, Euskal Herria soil dezagun ta gal,
suntsi bedi haren izena” darauste;
hainbat kristau on hil edo bota dute:
apez, gizon, mutil, andre, neskatx’argal.

Hoben egin dugu, Jauna, egia da,
zure legea maiz oinkatu baitugu,
zuzenez dagoku zure zigorrada.

Halere gu beti zureak gaituzu:
gu zure menpeko, zu gure Jaun bakar,
bertze nagusirik guk ez dugu behar.

4. On litzateke horrekin bukatzea, baina eman dezagun akitzeko *Euskara, jalgi hadi plazara* hamalauko saritua, Korrika Euskal Herria osoan barna laster egiten eta euskara plazaratzen ari dela. 1954an *Euzko Gogoan* agertua hau ere.

Jalgi hadi berriz kanpora, Euskara,
oi Euskara zahar eta beti guri;
ager hadi garai, errege iduri,
gure mendi, zelai, herri, hiritara.

Ondikotz! Luzegi egon haiz plazara
ezin jalgiz etxe-zokoan beltzuri;
hire ume onek negar ta zinkuri,
etsaiek artean irri ta karkara.

Erauntz ezak, erauntz doluzko zurdatzza,
joan duk (agian betiko!) ekaitza,
zeruan agertu iguzkia diz diz.

Jaik hadi, Euskara, gazte lerdan arrai;
jauntzi ederrenez apaindurik orai
jenden aitzinera jalgi hadi berriz.

BIBLIOGRAFIA

I. ARGITARATUAK

a) Euskaraz edo euskarari buruzkoak

1. "Jesus maiteari".
Irugarrengo Prantziskotarra, 1916, 261. orr. Beste lan asko adizkari horretan 1913-1936 arteko urteetan hitz-neurtuz eta hitz-lauz, hasieran Ursuya eta gero Urtsuya ezizena erabiliz.
2. "Laetare Doctor inclite".
Auras del Arga, 1918, 6. orr. Beste bi olerki eta hitz-lauz lantxo bat aldizkari horretan 1919 eta 1920 urteetan, I'tar P.A. (= anaia) eta I'tar P. An. erabiliz.
3. "Udazkena".
B. de Arrigarai. *Euskal-Irakaspedea o sea Gramática del Euskera*, 1919, 272. orr.: Ursuya.
4. "Jesus Aurtxo".
Zeruko Argia, 1919, 6. orr. Aldizkari horretan Urtsuya, Urtsuia eta Iraizoz'ko Polikarpo A. izenekin 172 bat lan, gehienak hitz-neurtuz, eman zituen 1919-1936 arteko urteetan, eta bigarren aldiko 1954-1957 urteetan 5 hamalauko. 1919-1936koak ik. *Euskera*, 1981-1, 501 hh.
5. *Himno de Navarra a San Francisco de Xavier. Letra de Alberto Pelairea Garbayo. Música de Joaquín Larregla. Versión euskera del P. Policarpo de Iraizoz capuchino*. [1922]. Honela hasten da: "Gora dezagun guztiok".
6. "Nere lorategia".
Euskal-Esnalea, 1926, 12-13.
7. *Urte guziko Igande ta Jaiegunetako Ebangelioak. Erriarentzako liturgia. 1933'ko argitaldia* (Data, estalkian) ... *Iraizoz'ko Polikarpo A. Kaputxinoak. Neketako Ama-Birjiñaren Irarkolan. Iruña'n* (83 orr., [2], 15 zm.). Beharbada bi agerraldi izan ditu.
8. *Yesu-Kristo gure Yaunaren bizia lau Ebangelioetatik itzez-itzez atera ta Iraizoz'ko Polikarpo A. Kaputxinoak euskeraz yarría*. Neketako Ama-Birjiñaren Irarkolan Iruña'ko Kaputxinoetan. 1934 (XI-558 orr., 15 cm).
9. *Gimnasia Lekarotz. Pedagógico-rítmica. Método sueco Kumlien-Ling. Letra vasca de P. de Iraizoz. Música de Hilario Olazarán de Estella*. Tolosa: Editorial de Música Vasca. 1934 (18 orr., 33 cm).
10. *Lapurren menpean*.
Zeruko Argia-n eranskin gisa agertu ziren zatika 1934 urtetik edo aurrera 112 orr. Iruñean Kaputxinoen irarkolan. Dima-ko Fernando Soloeta kaputxinoaren *Mi cautiverio bajo el Dragón Rojo*, Buenos Aires, 1936 urtean azaldu zenaren itzulpena da, 1934 (sic) urtean bukatu zuela itzulpenaren hondar orrialdea.

11. "Goraintzi!"
Yakintza, 9 zenb, 1934, 175. orr. Beste lau olerki alemanetik itzuliak 1934-1935 urteetan.
12. *Bi artzainak Eguberri gauean.*
Zeruko Argiaren Izpiak I ... "Des Knaben Wunderhorn" liburutik Iraizoz'ko P.A.-k euskaratua. [1935] (8. orr., 16,5 cm).
13. "Las palabras vascas en las Glosas Emilianenses".
BAP, 1951, 525-526.
14. *Arimaren zuzenbidea.*
Donosti'ar Gabriel Aita Kaputxinoak egiña ta Iraizoz'tar Polikarpo Aita Kaputxinoak euskeratua. Imp. Lib. Enc. Montepío Diocesano. Vitoria. [1952] (107 orr., 14,5 cm).
15. "Erlea ta usoa".
Aita Onaindia. *Milla euskal-olerki eder.* 1945, 992-993 orr. Beste hiru olerki eta salmo bat liburuan.
16. "Iainkoa ta Gofñi".
Euzko Gogoia, 1954, 51. orr. Irisarri ezizenarekin beste 37 hamalauko 1954-1958 arteko urteetan.
17. *Gurutze Bidea.*
Iraizoz A. Kaputxinoa ... Iruñea, 1957 eta berriz 1958an.
18. *Obras musicales del Padre Donostia.*
P. Jorge de Riezu ... I. *Navidad*, 1960; II. *Pascua*, 1965; III. *Jesucristo*, 1966; IV. *Marial*, 1966; V. *Santoral*, 1976; VI. *Lili eder bat*, 1962; IX. *Larre Gorrian*, 1971.
19. "Simeonen berri txarrak".
Oleri, III-IV, 1963, 10-11. Beste 20 hamalauko Irisarri ezizenarekin 1963-1964 urteetan.
20. "Erho, eho (matar)".
FLV, 11, 1972, 149-151.
21. *Nafarroa-ko Euskal-Kantu Zaharrak.*
P. Jorge de Riezu ... Iruñea-Lekaroz, 1973. Liburu honen *Eskaintza* Polikarpok egiña da.
22. *Nafarroa-ko Euskal-Esaera Zarrak.*
Intza'r Damaso Aita ... Iruñea, 1974. Polikarpok egiña da *Liburu onen egilleaz lau itz hitzaurre gisakoa*, 9-10.
23. "Versos euskéricos del siglo XVIII".
FLV, 22, 1972, 65-75.
24. "Bizargin maltzurra".
Diario de Navarra egunerokoan agertua 1977-11-25.ean edo. Besterik ere agertu zen, Angel Irigaray-k zeraman sailean.

25. "Documento de Joaquín Lizarraga sobre bailes publicado por José María Satrustegui en FLV".
FLV, 27, 1977, 495-498.
26. "Verbo vasco por «manar, fluir» erion ala jario".
Euskera, XXIII, 1978-1, 215-218.
27. "Vocabularito y fraseología de Joaquín Lizarraga (I)".
FLV, 29, 1978, 245-297; (II), 30, 1978, 461-486; (III), 31, 1979, 121-162; (IV), 32, 1979, 303-332.
28. *Kristo gure Jauna eta andredena Maria*.
Leopoldo Zugaza, argitaldaria, irrisiko zorta, 1979 (52 orr., 24 cm).
29. "Yániz = Salinas de Oro".
FLV, 34, 1980, 5-10.
30. "Nombre vasco de Pamplona: Iruñea, Iruña, Iruñe?".
FLV, 35-36, 1980, 427-434.
31. "Jaundone Mikel Aingerua".
Egan, 1-6, 1980-1981, 29-32. Bost hamalauko, lehenago ere argitaratuak izan zirenak.

b) Erdaraz

1. *Los Ideales de S. Francisco de Asís*.
P. Hilarino de Lucerna ... Pamplona, 1926. Alemanetik itzulia. Beste edizio bat Buenos Aires-en, 1948an.
2. *Consejos a los Misioneros de China*.
Pamplona, 1927. Alemanetik itzulia.
3. *Jesús de Nazaret*.
Hilarino Felder ... Buenos Aires, 1949. Alemanetik itzulia.
4. *Crítica de Asia sobre el Cristianismo del Occidente*.
Thomas Ohm ... Buenos Aires, 1950. Alemanetik itzulia.
5. *El Caballero de Cristo Francisco de Asís*.
P. Hilarino Felder ... Barcelona, 1957. Alemanetik itzulia.
6. *Analecta Ordinis Fratrum Minorum Capuccinorum* eta *Tertius Ordo* kaputxinoen aldizkarietan lan asko eta asko daude, berak latinez batez ere eginak.

II. ARGITARA GABEAK

a) Euskaraz edo euskarari buruzkoak

1. Predikua. Badira 243 sermoi euskaraz.
2. Ipuinak eta izkirimiriak. 41 bat dira argitara gabe daudenak edo non izan ziren argitaratuak ez dakigunak —beste 26 badakigu non izan ziren emanak—.

3. Herriarengandik bildutako hitzak.
4. Liburuetatik bildutako hitz eta esamoldeak.
5. Larramendiren *Diccionario Trilingüe*-tik hartutako esaerak.
6. Etimologiak: berak asmatuak edo handik eta hemendik bilduak.
7. Toponimia. Leatxen etab. 1768 urtean erabiltzen zituztenak, *Amayur* astekarian Julio R. de Oyaga-k argitaratuak.
8. 1614 urteko *Credoa* dakarren liburuaren zenbait fotokopia eta latinez egindako liburuaren laburpena.
9. Bataio izenak nola euskaraz. Erroman 1910ean emandako erabaki baten aldakia makinaz.
10. Gutunak. Polikarpo, Mitxelena, Damaso-Erburu (de Jautarkol), Villasante, Euskaltzaindia, M. Izeta, Timoteo (Plaza), Antselmo Legardakoa, Elias Labio Labianokoa, Akesolo eta Irigaray-renak.
11. Villasantek moldaturiko Axular-en hiztegiak zenbait iritzi.
12. Lizarrako kale izenez.
13. Nafarroako Orduen Liturgiarako irakurgaien itzulpena latinetik etab. c. 1976an.

b) **Erdaraz**

1. Latinez zenbait otoitz-gai Ama Birjinaren festetarako etab.
2. Gaztelaniaz 3 sermoi.
3. Gaztelaniara itzuliak Esteban Adoingoa kaputxinoaren euskal predikuak.
4. Gaztelaniara itzulia Juan Berakoa kaputxinoaren prediku bat.

ERANSKINA

R.M. Azkuek jakinarazten dio 1941 urtean gutun baten bidez A. Polikarpori euskaltzain izan dela izendatua, baina honek erantzuten dio ez duela onartzen izendapena. Hona hemen gutunak:

A. Azkuek Polikarpori
 Bilbao, Ribera 5.
 14-IV-1941
 R.P. Policarpo de Iraizoz

Apreciado amigo: Tengo mucho gusto en participarle la agradable noticia de que esta Academia empieza ya a revivir por iniciativa de la Junta de Cultura de esta nuestra Diputación.

Como no quedamos aquí más que tres miembros de ella (dos, residentes en San Sebastián, Urquijo e Inzagaray, y este servidor) fui allá hace algunos días con objeto de preparar la reconstitución de esta nuestra Corporación.

Por ahora, según indicación de la Junta de Cultura, no figurarán entre nosotros los vasco-franceses; y los nueve, que a esta nuestra región corresponden, serán en adelante, además de los tres citados, D. Juan Carlos de Guerra, D. Nazario Oleaga, D. Juan Iriyoyen, usted, y Pablo Zamarripa y otro que todavía no está elegido.

Si, como es de suponer, acepta V. este nombramiento, hágamelo saber prontito. De paso podría V. citarme nombres de músicos vascos capuchinos, con datos biográficos y noticias de sus composiciones para que puedan figurar en un Diccionario de música que están preparando en Barcelona.

La primera Junta académica tendrá lugar aquí a fines de este mes.

Afectuosos recuerdos a los P.P. Echalar, Begoña y otros conocidos míos.

Suyo affmo. en el Señor...

R.M. de A.

* * *

B. Polikarpok Azkueri

Lecaroz (Navarra)

19 de abril de 1941

Sr. D. Resurrección M.^a de Azkue, Pbro., Presidente de la Academia de la Lengua Vasca

Bilbao.

Respetado Señor y querido amigo: Su carta del 14 me ha sorprendido con la grata noticia de que la Academia de la Lengua Vasca, que usted preside, comienza a revivir y va a reanudar sus actividades, interrumpidas estos últimos años. Conociendo mi grande amor a nuestra pobre lengua, comprenderá usted lo mucho que me ha alegrado esa noticia. Debo agradecerle también el honor que me ha hecho al nombrarme para formar parte de la Academia; no creo haber adquirido tantos méritos como para aspirar a esa distinción; quedo pues muy agradecido.

En cuanto a aceptar ese cargo que me ofrecen, eso ya es otra cuestión; no me parece prudente aceptar el nombramiento. Ante todo, como no soy independiente sino que soy hijo de obediencia, no podría dar ese paso sin contar con el permiso de mis Superiores. Ahora bien, aunque no he tenido tiempo para consultarles sobre el particular, creo interpretar su voluntad al no aceptar su ofrecimiento. Pertenezco a una Orden Religiosa, que ha tenido que sufrir mucho, porque algunos de sus miembros se han dedicado al estudio de nuestra lengua, historia, folklore etc. Recuerde usted, por no citar más, el caso de su antiguo colega nuestro buenísimo P. Inza... Con una experiencia tan reciente y tan desagradable comprenderá usted que no haya ganas de repetirla; y por lo mismo comprenderá usted también que nuestros Superiores no sean partidarios de que sus Religiosos tomen parte en esas actividades que en sí, claro está, no tienen nada que sea

impropio de un Religioso. Y tampoco le extrañará que yo personalmente tenga pocos ánimos para trabajar en ese sentido.

Espero pues que se dará usted cuenta de nuestra situación y que no llevará a mal mi negativa a aceptar el nombramiento que han hecho en mi favor.

Respecto a los músicos capuchinos, yo, como no soy músico, aunque no dejo de tener afición a la música, mal podría cumplir con su encargo. De los PP. José Antonio de S.S. y Olazarán de Estella, tiene usted los datos en la Enciclopedia Espasa; de otros Padres (P. Elduayen, P. Legarda, P. Tolosa) hemos encargado ya que recojan los datos necesarios, pero deben tardar en recogerlos, porque algunos de esos Padres no están aquí.

Y nada más, sino felicitarle a usted de todo corazón porque a pesar de sus años aún sigue usted con tantos arrestos para trabajar por nuestras cosas. Yo le admiro a usted. Que Dios le conserve aún muchos años la vida y esas energías de joven.

Es lo que de todo corazón le desea su affmo. in Christo Iesu.

P. Policarpo de Iráizoz (errubrika)